

\_\_\_\_\_/2020 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, martxoaren 17koa, COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzkoa.

Pasa den urtarrilean, Munduko Osasun Erakundeak (MOE) nazioarte mailako osasun publikoko larrialditzat jo zuen COVID-19 koronabirusak sortutako egoera. COVID-19ak izan duen bilakaerak eragindako egoeraren ondorioz, osasun-arloko agintariek aparteko euste-neurriak hartu behar izan dituzte. Azkenik, martxoaren 11n, MOEk pandemiatzat jo zuen gaitza.

Europar Batasunean, estatuburuek eta gobernu buruek Kontseilu Europarraren ezohiko bilera bat egin zuten martxoaren 10ean, estatu kideen egoera aztertzeke, eta Europak ikuspegi bateratua behar duela berretsi zuten, baita beharrezkoak diren neurriak hartu, eta azkar jardun behar dela ere. Ildo horretan, Kontseilu Europarrak lau lehentasun identifikatu zituen:

Lehenengoa, birusaren hedapena mugatzea. Estatu kideek berriro jo zuten lehentasun nagusitzat herritarren osasuna bermatzea, eta berretsi zuten egiten den guztia gomendio zientifikoetan eta osasun-arloko agintariek emandako gomendioetan oinarritu behar dela, egoeraren araberako neurriak hartuta.

Bigarrena, ekipamendu medikua bermatzea. Erabaki zen Batzordeari agindua ematea beharrak aztertzeke, eta hornidurarik gabeko egoerak saihesteko ekimenak sustatzeko, industriarekin batera, kontratazio publiko bateratuen bidez.

Hirugarrena, ikerketa sustatzea, bereziki txerto bat garatzeko.

Eta, azkenik eta laugarrena, ondorio sozioekonomikoei aurre egitea. Europar Batasunak eta bere estatu kideek nabarmendu zuten prest daudela beharrezkoak diren tresna guztiak erabiltzeko. Zehazki, egoera honek likidezian izan dezakeen eragina kontuan hartuta, enpresa txiki eta ertainak, ukitutako sektore espezifikoak eta langileak babesteko.

Azaldutakoa dela bide, foru-dekretu arauemaile honen xedea da agintari eskudunek hartutako neurrien eraginpean dauden zergadunak izaten ari diren inpaktu ekonomiko negatiboari aurre egiteko neurriak hartzea. Halaber, enpresa txiki eta ertainen gaineko inpaktu ekonomikoa areagotzea eragotzi nahi da; zehazki osasun-larrialdiko egoerak ekonomiaren sektore



zaugarrietasan, hau da, enpresa txiki eta ertainengan eta langile autonomoengan izan dezakeen inpaktua arintzeko eta enpresa txiki eta ertainen eta langile autonomoen likidezia bermatzeko neurriak hartu behar dira.

Foru-dekretu arauemaile honek zenbait tributu-neurri ezartzen ditu, zortzi artikulutan banatuta. Aldi baterako neurriak dira, aipatutako ezinbesteko arrazoi horren ondorioz presaz hartu beharrekoak, zergadunen eskubideak bermatu eta babesteko.

Lehenengo artikuluan, xedea eta aplikazio-eremua zehazten dira. Bigarrena, tributu-prozedura batzuetan epeen hasiera eteteari edo luzatzeari buruzkoa da. Epe horiek 2020ko martxoaren 16tik –data horretatik aurrera izango ditu ondorioak foru-dekretu arauemaile honek– 2020ko ekainaren 1era eten edo luzatuko dira, Zerga Administrazioak ofizios hasitako prozedurak edo zergapekoak eskatuta hasitakoak diren kontuan hartuta. Bestalde, 3. artikulua xedatzen du borondatezko epean autolikidazioa eta likidazioa egiteko zenbait eperen amaiera luzatu egingo dela, zerga-betebeharrak telematikoki bete behar dituzten zergadunentzat. 4. artikulua ezartzen du eten egingo direla, izapidetzen ari diren prozedurak ebazteko, Zerga Administrazioak dituen epeak, eta zergapekoek bete beharreko epeak: tributuen arloko errekerimenduei erantzuteko epeak, administrazio-errekurtsoak aurkezteko epeak edo erreklamazio ekonomiko-administratiboak aurkezteko epeak. Bosgarren artikulua salbuespenezko gerorapenen araubide bat ezartzen du aldi baterako, Bizkaiko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduan jasotako araubide orokorraren osagarri gisa. Salbuespenezko gerorapen horiek ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoek erabili ahal izango dituzte, baita lurralde historikoko enpresa txiki eta mikroenpresek ere, eta ez zaie bermerik eskatuko, eta ez dute interesik sortuko. Jarraian, 6. artikulua hilabetez atzeratzen du onartutako gerorapenei dagozkien kuoten eta interesen muga-eguna. Beste alde batetik, 7. artikulua ezartzen du premiamendu-probidentzien jakinarazpena eten egingo dela 2020ko ekainaren 1era arte. Azkenik, 8. artikulua ezartzen du ez direla egin behariko ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoek PFEZaren kontura egin beharreko lehenengo eta bigarren hiru hilekoetako ordainketa zatikatuak, aurtengo apirilean eta uztailean sartzekoak direnak.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 8. artikulua 2. apartatua jasotakoaren ondorioz eta agintariak –ahal den neurrian



COVID-19ak eragindako aparteko egoera arintzeko— neurriak azkar hartu behar dituztenez, beharrezkoa da foru-dekretu arauemailearen bidetik jotzea; izan ere, horrela, arau horretan jasotako neurriek berehalako eragina izatea lortuko da. Dena dela, foru-dekretu arauemailea onartu ondoren, haren berri eman behar zaie Batzar Nagusiei, berrets dezaten.

Hori dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Aldundiak 2020ko martxoaren 17ko batzarrean eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

#### HAU XEDATZEN DUT:

##### 1. artikulua. *Xedea eta aplikazio-eremua.*

Foru-dekretu arauemaile honetan ezarritako neurri fiskalen xedea da Bizkaiko Foru Ogasunak funtzionamendu normala izatea eragozten duten COVID-19 birusak sortutako pandemiaren ondorioak arintzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren pean dauden zergadunen kasuan.

##### 2. artikulua. *Tributu-prozedura batzuetan epeen hasiera etetea edo luzatzea.*

Bat. Indarrean dagoen tributu-araubidearen arabera ofizioz hasi behar diren tributu-prozeduretan, hasiera hori eten egingo da 2020 ekainaren 1era arte, 2020ko martxoaren 16tik aurrera hasi behar diren prozeduren kasuan.

Aurreko paragrafoan ezarritakoak ez die inola ere eragingo zehapen prozedurei, ofiziozko konpentsazioei, enbargoiei, gerorapenak onartzeko erabakiek eraginkortasuna galtzea dakarten ekintzei, kobraezinen deklarazioei eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren likidazio-proposamenei.



Bi. Tributu-araubidearen arabera aurkezpen telematikoa nahitaezkoa ez duten tributu-prozeduren autolikidazioa edo aitorpena aurkezteko borondatezko epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatuko da, betiere epe hori data hori baino lehen amaitzen bada.

Hiru. Halaber, errekursoak edo erreklamazio administratiboak aurkezteko epeen hasiera edo zergapekoek eskatuta hasi behar den tributuen arloko beste edozein jarduketaren hasiera 2020ko ekainaren 1era arte luzatuko da, tributu-araudian aurkezpen telematikoa nahitaezkozat ezarrita ez duten prozeduretan.

3. artikulua. *Borondatezko aldiko zenbait eperen amaiera etetea.*

Bat. Tributu-araubidearen arabera aurkezpen telematikoa nahitaezkozat ezarrita duten tributu-prozeduren otsaileko autolikidazioak aurkezteko eta sartzeko borondatezko epea 2020ko apirilaren 14ra arte luzatuko da.

Bi. Halaber, likidazioa sartzeko epea 2020ko martxoaren 16an amaitzen den kasuetan, epe hori hamabost egun naturalez luzatuko da.

4. artikulua. *Tributu-prozeduren izapidetzea etetea.*

Bat. 2020ko martxoaren 16a baino lehen hasi diren tributu-prozeduren etenaldiak etenaldi justifikatutzat joko dira zergapekoaren kasuan, edo, bestela, Zerga Administrazioari egotzi ezin zaion arrazoen ondoriozko luzamendutzat joko dira, eta, beraz, ez dira zenbatuko prozedurak ebazteko epean. Neurri hau ezarriko da prozedura eteten denetik 2020ko ekainaren 1era arte.

Bi. Horrez gainera, dokumentuak, aurrekariak edo tributu-ondorioak dituen informazioa aurkezteko, Administrazioak egindako errekerimendu indibidualizatuei erantzuteko epea eten egingo da 2020ko martxoaren 16tik 2020ko ekainaren 1era arte, aipatutako epea bi data horien artean amaitzen bada.

Hiru. 2020ko martxoaren 16tik 2020ko ekainaren 1era bitartean, ez da berandutza-interesik sortuko egiaztapeneko eta ikerketako prozeduretan, ezta egiaztapen laburtuko prozeduretan ere.



5. artikulua. *Tributu-zorren salbuespenezko gerorapena.*

Bat. Ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsonen tributu-zorrak eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan definitutako mikroenpresa eta enpresa txikien tributu-zorrak geroratu ahal izango dira, betiere aurkezteko eta ordaintzeko borondatezko epea 2020ko martxoaren 16tik ekainaren 1era bitartean amaitzen bada, eta gerorapen horretarako ez da bermerik aurkeztu beharko, eta ez da berandutza-interesik sortuko, artikulua honetan xedatutakoarekin bat.

Halaber, modu berean eta baldintza berberetan geroratu ahal izango dira ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsonen tributu-zorrak eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan definitutako mikroenpresa eta enpresa txikien tributu-zorrak Zerga Administrazioak egindako likidazioen ondorio direnean, ordaintzeko borondatezko epea 2020ko martxoaren 16tik ekainaren 1era bitartean amaitzen bada.

Bi. Salbuespenezko gerorapen hau aplikatu ahal izango zaie jokoaren gaineko tributuen ondoriozko tributu-zorrei.

Hiru. Salbuespenezko gerorapen hau aplikatzeko eskabidea Bizkaiko Foru Ogasunaren Bizkaibai zerbitzuaren bidez aurkeztu behar da, eta Zerga-bilketako zuzendariordeak ebatziko du, bi hilabeteko epean gehienez.

Lau. Artikulu honetan aipatzen diren geroratutako zorrak ordaintzeko epea hiru hilabetez etengo da, aitorpena eta ordainketa egiteko borondatezko epea amaitzen denetik zenbatuta. Hiru hilabeteko epe hori amaitu ondoren, kopuru bereko hileko 6 kuotatan zatikatuta ordainduko dira.

Bost. Gerorapena onartzen ez bada, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 60.1.b) artikuluan ezarritako epearen barruan ordaindu beharko da zorra.

Sei. Borondatezko epea amaitzen denean eskabidea ebatzi gabe badago, eten egingo da epe exekutiboaren hasiera.



Zazpi. Artikulu honetan araututako salbuespenezko gerorapenei ez zaie aplikatuko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduan xedatutakoa.

#### 6. artikulua. *Indarrean dauden gerorapenak*

Hilabete atzeratuko da onartutako gerorapenen martxoko ordainketa egiteko muga-eguna, eta, ondorioz, hilabete atzeratuko da gainerako muga-egunetako bakoitza; ez da berandutza-interesik sortuko 2020ko martxoaren 25etik apirilaren 25era arteko epeak direla-eta.

#### 7. artikulua. *Premiamendu-probidentzien jakinarazpena aldi baterako etetea.*

Ordaintzeko borondatezko epean sartzen ez diren zorrak ordaintzeko epe exekutiboa Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 165. artikuluan ezarritakoarekin bat hasiko da, borondatezko epea 2020ko martxoaren 16tik 2020ko ekainaren 1era bitartean amaitzen bada. Kasu horietan, Zerga Administrazioak dagokion premiamendu-probidentzia emango du, baina ez da jakinaraziko 2020ko ekainaren 1a baino lehen.

#### 8. artikulua. *Ordainketa zatikatuak.*

Ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek ez dituzte Bizkaiko Foru Ogasunean autolikidatu eta ordaindu beharko 2020ko lehen eta bigarren hiruhilekoetako ordainketa zatikatuak.

#### Azken xedapenetako lehena. *Indarrean jartzea*

Foru-dekretu arauemaile hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta egun berean jarriko da indarrean eta 2020ko martxoaren 16tik aurrera izango ditu ondorioak.



Amaierako bigarren xedapena. *Baimena ematea*

Bat. Baimena ematen zaie Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru-diputatuari foru-dekretu arauemaile hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzaten.

Bi. Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru-diputatuari foru-dekretu arauemaile honetan jasotako tributu-neurrien indarraldia luzatzeko foru-agindu bidez, betiere beharrezkoa bada dekretua onartzea eragin duten ezohiko inguruabarrak ez direlako desagertu.

Halaber, baimena ematen zaio Ogasun eta Finantzen diputatuari zergadunen tributu-betebeharrak betetzeko epe guztiak aldatzeko foru-agindu bidez, COVID-19ak sortutako egoerak hala eskatzen badu.

Amaierako hirugarren xedapena. *Batzar Nagusiei igortzea*

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan xedatutakoarekin bat, Batzar Nagusiei foru-dekretu arauemaile honen onespeneraren berri emango zaie, berrets dezaten.

Bilbon, 2020ko martxoaren 17an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia

UNAI REMENTERIA MAIZ